Zumaiako Udala

2013IAKU0007

# 68. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2013ko uztailaren 11an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**
Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Azis Alberdi Zaldunbide jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Edurne Egaña Manterola and.
Xabier Gallastegi Idigoras, jn.
Aitor Leiza Alberdi jn

**Ez bertaratuak**
Isidro Fernandez Echave jn.
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.
Eneko Agirre Maiora jn

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

2013IAKU0007

## EGUNEKO AZTERGAIAK

## 1.- PROPOSAMENA.-

**<<EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTURIKOA¸ ONTZIOLEI ELKARTASUNA ADIERAZTEN.**

Lehenago konponbiderik aurkitzen ez bazaio, uztailaren 17an Europako Komisarioen Elkargoak *Tax leasearen* inguruko ikerketa espedientean aurreikusitako erabakia baieztatuko du eta euskal ontzigintza hondoratze bidean jarriko du.

Iragarritako erabakia baieztatzen bada, milaka familiaren etorkizuna eta ehunka enpresaren eta profesional handiren ahalegina ezerezean geratuko da.

Balizko erabaki horrek eragindakoen artean dago Balenciaga ontziola, gure herrian trakzio-lan handia egiten duen enpresetako bat.

Gure ontziolek eta euren artean Zumaiako Balenciagak, *Tax lease* eta guzti ere, finantziazioa garesti eta lortzeko zail eduki dutenez, Europako lehiakideak baino baldintza okerragoetan aritu behar izan dute merkatuan. Hala eta guztiz ere, teknologikoki aurrean dabil euskal ontzigintza eta balio erantsia eskatzen duten ontzien alorrean lehiakorra da.

Gaitasun eta ahalegin horiek guztiek bertan behera gelditzeko arriskua dute proposamen bidegabe, neurrigabeko eta baztertzaile hau tarteko.

Erabakia **bidegabea** da, oinarrian zerga erregimena bateraezintzat jotzen duelako, eta erregimen hori gardena izan delako Batzordearentzat eta erkidegoan dauden beste erregimen batzuen parekoa helburuei dagokienez.

Erabakia **neurriz kanpokoa** da, eta hori ikusteko nahikoa da balantzaren alde batean jartzea *tax leasea* aplikatzeak lehiakideengan izan duen benetako eragina eta beste aldean, berriz, dirua itzultzeko erabakiak izango lituzkeen ondorio suntsitzaileak. Eta horren froga argiena da lehiakide europarren egoera ona dela eta ontziolarik ez dela itxi Europan euskal ontzigileen lehia desleiala izan delako.

Eta erabakia **baztertzailea** ere bada, Batzordeak aurrez antzeko beste kasu batzuetan ez duelako dirua itzultzerik eskatu.

Europako batzordeak eta zehazki Almunia komisarioak ondo asko daki dirua itzultzea erabakitzen bada ontziolak ezin eutsizko egoera batera eramango dituela horrek, ezin izango dutelako ontzi berriak egiteko kontraturik eta finantzaketarik lortu. Uste dugu nahikoa datu badaudela zerga erregimen hau ezartzerakoan erabili diren segurtasun juridikoaren eta lege konfiantzaren printzipioak defendatzeko, eta printzipio horiek dirua ez itzultzea babestuko lukete.

Horregatik guztiagatik ZUMAIAKO UDALAK:

1. Astilleros Balenciagako langileei eta administrariei, hala nola bere inguruan lan egiten duten enpresetakoei ere **elkartasuna eta babesa adierazten** die.

2. Industria edota fiskalitatean **ardurak dituzten erakundeei**, alegia Espainiako estatuari, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiei erabaki proposamena gauzatu ez dadin **beren esku dagoen guztia egiten jarrai dezatela eskatzen** diegu.

3. **Dei egiten diogu Europako Batzordeari** ontziolak itxi eta milaka langile langabeziara eraman ordez, ontzigintza sektorearen garapen iraunkorraren alde egiten ahalegindu eta ontzigintza europarra sektore estrategiko gisa defenda dezan.

**EAJ-PNV udal taldea**

Zumaiako Udala

2013IAKU0007

Zumaia, 2013ko uztailaren 4a>>

## 1.A.- BILDU TALDEAK EGINIKO EMENDAKINAK EZTABAIDATZEA ETA BOZKATZEA.-

### <<ONTZIOLEI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MOZIOA

Lehenago konponbiderik aurkitzen ez bazaio, uztailaren 17an Europako Komisarioen Elkargoak *Tax leasearen* inguruko ikerketa espedientean aurreikusitako erabakia baieztatuko du eta euskal ontzigintza hondoratze bidean jarriko du.
Iragarritako erabakia baieztatzen bada, milaka familiaren etorkizuna eta ehunka enpresaren eta profesional handiren ahalegina ezerezean geratuko da.
Balizko erabaki horrek eragindakoen artean dago Balenciaga ontziola, gure herrian trakzio-lan handia egiten duen enpresetako bat.
Gure ontziolek eta euren artean Zumaiako Balenciagak, *Tax lease* eta guzti ere, finantziazioa garesti eta lortzeko zail eduki dutenez, Europako lehiakideak baino baldintza okerragoetan aritu behar izan dute merkatuan. Hala eta guztiz ere, teknologikoki aurrean dabil euskal ontzigintza eta balio erantsia eskatzen duten ontzien alorrean lehiakorra da.
Horrez gain, kontuan izan behar da Europako ontzigintzak izan duen bilakaera, izugarri atzeratu baita Txina, Korea, Japonia eta antzeko merkatuekin alderatuta, nahiz eta armadoreen %90 europarrak izan. Herrialde horiek ere jasotzen dituzte ontzigintzarako diru-laguntzak.
Horrek guztiak balio behar luke Europak gai honen inguruan gogoeta sakona egin dezan.
Gaitasun eta ahalegin horiek guztiek bertan behera gelditzeko arriskua dute proposamen bidegabe, neurrigabeko eta baztertzaile hau tarteko.
Erabakia **bidegabea** da, oinarrian zerga erregimena bateraezintzat jotzen duelako, eta erregimen hori gardena izan delako Batzordearentzat eta erkidegoan dauden beste erregimen batzuen parekoa helburuei dagokienez. Batzordea jakinaren gainean zegoen Espainiako estatua sektorea diruz laguntzen ari zela azken urteetan eta ez du EZERTXO ERE egin.
Erabakia **neurriz kanpokoa** da, eta hori ikusteko nahikoa da balantzaren alde batean jartzea *tax leasea* aplikatzeak lehiakideengan izan duen benetako eragina eta beste aldean, berriz, dirua itzultzeko erabakiak izango lituzkeen ondorio suntsitzaileak. Eta horren froga argiena da lehiakide europarren egoera ona dela eta ontziolarik ez dela itxi Europan euskal ontzigileen lehia desleiala izan delako.
Eta erabakia **baztertzailea** ere bada, Batzordeak aurrez antzeko beste kasu batzuetan ez duelako dirua itzultzerik eskatu. Antzeko kasuetan Batzordeak ezer ez egiteko erabili izan duen argudio berbera erabili beharko litzateke orain ere berdin-berdin.
Europako batzordeak eta zehazki Almunia komisarioak ondo asko daki dirua itzultzea erabakitzen bada ontziolak ezin eutsizko egoera batera eramango dituela horrek, ezin izango dutelako ontzi berriak egiteko kontraturik eta finantzaketarik lortu.
Balenciaga ontziolak berak eskaera bat geldiarazita du gai hau ebatzi arte, eta horrek ziurgabetasun kezkagarria eragiten du ontziolaren ekoizpenean eta epe laburreko lanetan.

Uste dugu nahikoa datu badaudela zerga erregimen hau ezartzerakoan erabili diren segurtasun juridikoaren eta lege konfiantzaren printzipioak defendatzeko, eta printzipio horiek dirua ez itzultzea babestuko lukete.

Horregatik guztiagatik ZUMAIAKO UDALAK:

4. Astilleros Balenciagako langileei eta administrariei, hala nola bere inguruan lan egiten duten enpresetakoei ere **elkartasuna eta babesa adierazten** die.

5. Industria edota fiskalitatean **ardurak dituzten erakundeei**, alegia Espainiako estatuari, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiei erabaki proposamena gauzatu ez dadin **beren esku dagoen guztia egiten jarrai dezatela eskatzen** diegu.

6. **Dei egiten diogu Europako Batzordeari** ontziolak itxi eta milaka langile langabeziara eraman ordez, ontzigintza sektorearen garapen iraunkorraren alde egiten ahalegindu eta ontzigintza europarra sektore estrategiko gisa defenda dezan.

**BILDU udal taldea**

Zumaia, 2013ko uztailaren 4a**>>**

Edurne Egañak (PNV-EAJ) proposamena aurkeztu du eta BILDUk aurkeztutako emendakinekin, proposamen transakzionala adostea proposatu du. Proposamenaren testua irakurri du.

Aitor Leizak (ARALAR) Zumaiako herriarentzat hain gai garrantzitsua izanik, udal osoaren proposamena ez izatea faltan bota du.

Alkateak adierazi du BILDUk bat egiten duela EAJ-PNVek aurkeztutako proposamenarekin, beti ere euren ekarpenak proposamen bateratua bezala jasotzen badira, denen izenean, alegia. Ondoren, BILDUk proposatutako testua irakurri du.

Jarraian, bozkatzeari ekin diote; proposamena emendakinekin, hain zuzen ere.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 10 boto (5 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

**Erabakia**: EAJ-PNV-ek Ontziolei buruzko proposamena onartu da, BILDU taldeak egindako emendakinekin batera.

---------------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta hamazazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

**ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 68**

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día once de julio de dos mil trece, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

| | |
|---|---|
| **Presidente:** | Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta |
| **Concejales:** | Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua |
| | Sr. Iñaki Ostolaza Esnal |
| | Sr. Azis Alberdi Zaldunbide |
| | Sra. Maitane Agirre Arrieta |
| | Sr. Montse Arana Perez |
| | Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua |
| | Sra. Edurne Egaña Manterola |
| | Sr. Xabier Gallastegi Idigoras |
| | Sr. Aitor Leiza Alberdi |
| **No presentes** | Sr. Isidro Fernandez Echave |
| | Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez |
| | Sr. Eneko Agirre Maiora |
| **Secretario:** | Gorka Urgoiti Agirre |

**ORDEN DEL DÍA**

## 1.- PROPOSICION.-

<<**PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EAJ/PNV EN APOYO DE LOS ASTILLEROS**

**MOCIÓN EN APOYO DE LOS ASTILLEROS**

Si nada lo remedia, el próximo día 17 de julio el Colegio de Comisarios Europeos confirmará la decisión prevista en el expediente de investigación al llamado *tax lease* que pone la puntilla al sector naval vasco.

De confirmarse la decisión que se anuncia sobre el *tax lease* el futuro de miles de familias y el esfuerzo de cientos de empresas y de grandes profesionales se verá laminada.

Entre los afectados por esa posible decisión está Astilleros Balenciaga, una de las empresas tractoras de nuestro municipio.

Nuestros astilleros y más concretamente Astilleros Balenciaga de Zumaia, han estado operando y aguantando en el mercado, incluso con la concurrencia del *tax lease*, en condiciones desfavorables en relación con su competencia europea en materia de financiación, tanto por su disponibilidad como por su coste. Aun así el sector naval en Euskadi es un sector tecnológicamente avanzado y competitivo en el segmento de la construcción naval de valor añadido.

Esa capacidad y esfuerzo se puede ver ahora laminada por una propuesta injusta, desproporcionada y discriminatoria.

La decisión es **injusta** porque se basa en la declaración de incompatibilidad de un régimen fiscal que ha sido transparente para la Comisión y homologable en sus efectos a otros existentes en el ámbito comunitario

Es una decisión **desproporcionada** si ponemos en la balanza el efecto real sobre la competencia de la aplicación del *tax lease* y las demoledoras consecuencias de una decisión de devolución. La mejor prueba de ello es que la competencia europea goza de buena salud y ningún astillero europeo ha cerrado por la supuesta competencia desleal de un astillero vasco.

Y es una decisión **discriminatoria** en relación con anteriores decisiones de la Comisión en casos similares en los que no se ha solicitado la devolución.

La Comisión Europea y más concretamente el comisario Almunia sabe perfectamente que con la decisión de devolución aboca a los astilleros a un escenario imposible en materia de contratación y financiación de nuevos buques. Y creemos que dispone de elementos de juicio suficientes para defender los principios de seguridad jurídica y confianza legítima con los que se ha venido aplicando este régimen fiscal y que apoyarían la no devolución.

***Por todo ello, desde el Ayuntamiento de Zumaia:***

1.- ***Mostramos nuestro apoyo y solidaridad*** *a trabajadores y administradores de Astilleros Balenciaga, así como a los de todas las empresas auxiliares que colaboran con ésta.*
2.-***Instamos a las instituciones competentes*** *en materia de industria y fiscalidad: Estado Español, Gobierno Vasco y Diputaciones Forales que continúen haciendo todo lo que esté a su alcance para evitar que se materialice esta propuesta de decisión.*
3.- ***Hacemos un llamamiento a la Comisión Europea*** *para que en vez de cerrar astilleros y condenar al desempleo a miles de trabajadores, centre sus esfuerzos en apostar por el crecimiento sostenible del sector de la construcción naval y que defienda la construcción naval europea como sector estratégico.*

**EAJ-PNV udal taldea**

Zumaia, 4 de julio de 2013>>

## 1.A ENMIENDAS PRESENTADAS POR EL GRUPO MUNICIPAL BILDU,

**<<MOCIÓN EN APOYO DE LOS ASTILLEROS**

Si nada lo remedia, el próximo día 17 de julio el Colegio de Comisarios Europeos confirmará la decisión prevista en el expediente de investigación al llamado *tax lease* que pone la puntilla al sector naval vasco.
De confirmarse la decisión que se anuncia sobre el *tax lease* el futuro de miles de familias y el esfuerzo de cientos de empresas y de grandes profesionales se verá laminada.
Entre los afectados por esa posible decisión está Astilleros Balenciaga, una de las empresas tractoras de nuestro municipio.
Nuestros astilleros y más concretamente Astilleros Balenciaga de Zumaia, han estado operando y aguantando en el mercado, incluso con la concurrencia del *tax lease*, en condiciones desfavorables en relación con su competencia europea en materia de financiación, tanto por su disponibilidad como por su coste. Aun así el sector naval en Euskadi es un sector tecnológicamente avanzado y competitivo en el segmento de la construcción naval de valor añadido.
Además, hay que recordar que la evolución de la industria naval en Europa, ha retrocedido espectacularmente ante mercados como los de China, Corea o Japón, cuando el 90% de los armadores son europeos. Dichos países también cuentan con ayudas al sector naval.
Todo esto ha de servir para que Europa haga una reflexión profunda en esta materia.
Esa capacidad y esfuerzo se puede ver ahora laminada por una propuesta injusta, desproporcionada y discriminatoria.
La decisión es **injusta** porque se basa en la declaración de incompatibilidad de un régimen fiscal que ha sido transparente para la Comisión y homologable en sus efectos a otros existentes en el ámbito comunitario. La Comisión era conocedora de las ayudas del Estado español al sector desde hace años, sin que haya hecho NADA al respecto.
Es una decisión **desproporcionada** si ponemos en la balanza el efecto real sobre la competencia de la aplicación del *tax lease* y las demoledoras consecuencias de una decisión de devolución. La mejor prueba de ello es que la competencia europea goza de buena salud y ningún astillero europeo ha cerrado por la supuesta competencia desleal de un astillero vasco.
Y es una decisión **discriminatoria** en relación con anteriores decisiones de la Comisión en casos similares en los que no se ha solicitado la devolución. El argumento de la inacción de la Comisión para casos similares a éste, tiene que ser aplicado de la misma manera.
La Comisión Europea y más concretamente el comisario Almunia sabe perfectamente que con la decisión de devolución aboca a los astilleros a un escenario imposible en materia de contratación y financiación de nuevos buques.
De hecho, ASTILLEROS BALENCIAGA tiene un pedido paralizado hasta su resolución de este tema, abocando así a una inquietante incertidumbre sobre la producción y trabajo inmediatos del astillero.
Y creemos que dispone de elementos de juicio suficientes para defender los principios de seguridad jurídica y confianza legítima con los que se ha venido aplicando este régimen fiscal y que apoyarían la no devolución.

***Por todo ello, desde el Ayuntamiento de Zumaia:***

1.- ***Mostramos nuestro apoyo y solidaridad*** *a trabajadores y administradores de Astilleros Balenciaga, así como a los de todas las empresas auxiliares que colaboran con ésta.*
2.-***Instamos a las instituciones competentes*** *en materia de industria y fiscalidad: Estado Español, Gobierno Vasco y Diputaciones Forales que continúen haciendo todo lo que esté a su alcance para evitar que se materialice esta propuesta de decisión.*
3.- ***Hacemos un llamamiento a la Comisión Europea*** *para que en vez de cerrar astilleros y condenar al desempleo a miles de trabajadores, centre sus esfuerzos en apostar por el crecimiento sostenible del sector de la construcción naval y que defienda la construcción naval europea como sector estratégico.*

**Grupo municipal BILDU**

Zumaia, 4 de julio de 2013>>

Edurne Egaña (EAJ-PNV) ha presentado la proposición y ha planteado la posibilidad de adoptar un acuerdo transaccional con la propuesta de enmiendas presentadas por BILDU. A continuación, a dado lectura al texto de la proposición.

Aitor Leiza (ARALAR) ha reclamado la necesidad de una proposición unitaria por la importancia del asunto para Zumaia.

El Alcalde ha manifestado su conformidad con el acuerdo transaccional y la adopción de una proposición unitaria, siempre que se recojan todas las enmiendas presentadas por BILDU. Seguidamente, ha dado lectura al texto propuesto por su grupo.

Han procedido, posteriormente, a votar una proposición unitaria con la proposición presentada por EAJ-PNV y las enmiendas propuestas por BILUD.

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: 10 votos (5 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

Votos en contra: 0 votos

Abstenciones: 0 votos

**ACUERDO:**

-----------------------------

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las siete y diecisiete minutos de la tarde y yo, el Secretario , doy fe.

El Secretario